

Ekitaldiak

Miguel Javier Urmenetaren jaiotza-mendeurrena

Iruñeko Udalean, 2016ko apirilaren 29an

Kronika

2016ko apirilaren 29an, Iruñeko Kondestablearen jauregian, Miguel Javier Urmeneta euskaltzain urgazlearen jaiotzaren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin zuen.

M. J. Urmeneta (Iruñea, 1915-1988) militar eta politikari nafarra izan zen. Besteak beste, 1957tik 1964ra Iruñeko alkate, eta 1964tik 1971ra Nafarroako foru diputatu ere izan zen. Zuzenbidea ikasi zuen Salamancan. Euskal nazionalista bazen ere, Espainiako Gerra Zibilean frankisten alde jarri zen, eta boluntario joan zen gerrara erreketekin. Ondoren, Dibisio Urdinean sartu eta Errusian borrokatu zen. Akademian karrera militarra ikasi zuen.

Euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi zuen. 1950eko hamarkadan euskararen aldeko politika duina eskatu zion orduko Nafarroako Foru Diputazioko presidenteari. Bere ahaleginari esker, Diputazioaren Vianako Printzea Erakundearen barnean, Euskararen Aldeko saila sortu zen. Era berean, Iruñeko Euskalerrria Irratiaren sortzaileetako, UEUren sustatzaileetako eta AEK-k antolatzen duen Korrikaren laguntzaileetako bat ere izan zen. Euskaltzaindiak, euskararen alde eginiko ahaleginak aitortuz, euskaltzain urgazle izendatu zuen 1966an.

Patxi Zabaleta euskaltzain osoak, eman duen hitzaldian, Miguel Javier Urmenetaren bizitzaren zenbait pasarte eta jakingarri landu ditu. Hitzaldi hori hurrengo orrialdeetan irakurtzeko aukera dago.

Ondoren, Asisko Urmeneta komikilari eta ilustratzaileak, Miguel Javier Urmenetaren semeak, hartu du hitza. Honek, familiaren izenean, Euskaltzaindiari eskerrak eman dizkio bere aita gogora ekartzegatik. Gauzak horrela, diapositibak lagun dituela, gogora ekarri ditu bere aitak sasoi desberdinetan idatzitako testuak, eginiko irudiak, bai eta haren gogoetak. Amaitzeko, ekitaldira hurreratu diren guztiei ere eskerrak eman dizkie.